

## Júpiter, oste, eta osterantzekoak

Euskaltzaindiaren ihazko batzarretako baten euskal-aditzaz genihardue-  
la, norbaitek eguraldiari dagozkion zenbaitetan erabilli ohi diren

euria egiten du, elurra egiten du, ...

eta antzerako esakuneak aipatu zituen, horrelakoetan izkutuko aditz-jabe  
bat ba delako iritzia azalduaz.

Nik dakidala behintzat, euskera dela eta horrelakoez jardun dutenetan  
Kintana izan dugu hauzi horrentzako argipideren baten billa abiatu den  
bakarra, LINGUISTIKA ORAIN ARTE delako bere liburuan<sup>1</sup> honako  
itaun hauk egiten zituela: NORK egiten du euria?; NORK haizea? NORK  
bota tximista?

Askapidea «oso ximplea» dela eta bere buruari erantzunez honela dios-  
ku: «Zeruko jainkoek egiten zuten fenomenoa. Honela, latinez JUPITER  
»PLUVIT... esaten zen. Jupiterrek egin du euria...». «Bainan kristautasu-  
»nak Jupiter guztiahaldun hura zeruko erreinutik jaurtikitzean, jendeak, fe-  
»derik ezaz, kendu zuen esaeratik haren izena». Eta, ondoren: «Orobat  
euskeraz».

Beraz, Kintanaren iritziz kristau-erlijioak erauzi bide zuen esakune za-  
har hoietan ageri zen jainko-izena; nik berriz, jakitunengana jota ere ez dut  
latinezko idazle zaharretan ere berak dionaren esakunearen itxurakorik  
aurkitu. Nundik jaso ote digu beraz idazleak aldatu dudana hortan diona?

Hasteko, eguraldiari buruzko esakuneok Europako sartaldeko hizkuntza  
guztietan bitxi eta arauz-kanpoko gertatu ohi direla esan beharra dago. Hau-  
zi hori (egillerik agertze ezarena, alegia) garbitzeko, hizkuntzotako gramati-  
kalariek aditzaren zer-denaz bat etorri beharko lukete baiñan, nere ustez,  
iñork ez du oraindik aditzari bete-betean legokioken eta aditzaren alderdi  
guztiak har ditzaken adi-mugapenik eskeiñi.

1 LUR editoriala-Hastapenak, 8 - 1971.

Agian, hedatuena honelatsuko bat dateke: SUJETO-aren izaera, egoera edo jarduna adierazten duen hitza <sup>2</sup>. Adi-mugapen hori behar bezain zehatza eta osoa ez dela agerian dago; izan ere, izenak ere SUJETO-aren izaera adierazten du (eta xuxen-xuxen adierazi ere), eta egoera aditz-lagunek ere eman dezakete (ZUTIK, adibidez) baiñan, nolani ere, gramatikolari hoik, beti, aditza SUJETO bati dagokion zerbaiten adierazgarri delakoan bat etorri izan dira. Baiñan LLUEVE, NIEVA, GRANIZA bezelakoetan SUJETO-rik agertzen ez, ordea, eta hor sortzen dira istilluak.

Honatx gatzelaniereaz diharduela Benot-ek diona <sup>3</sup>: «Sin duda es obvio »que estas aseveraciones no tienen sujeto..., pero ¿cómo iban los autores »a dejar caer por tierra tan suntuosa definición?» (Lehen aipatu duguna, alegia). Eta honela darraio: «No, de ninguna manera. Si no hay sujeto, preciso es inventarlo. Ni nadie TRUENA, ni nadie LLUEVE, ni nadie RE-»LAMPAGUEA; pero para no dejar por falsa la definición, hubo de asegurarse que hay en ellas siempre un sujeto CALLADO, el cual es Dios, la »Naturaleza, etc.». Eta honela bukatzen du: «Esto de suplir es el gran recurso para zafarse de toda dificultad».

Euskeraz, gutxi gora-behera: Ezpairik gabe, esakune hoik SUJETO-rik gabeko direla agerian dago, baiñan hain itxura dotoreko adi-mugapen bat asmatu zutenek nola utziko zioten bada lurra jotzen? Ez eta ez. SUJETO-rik ez badago, asmatu egin behar. Trumoia, euria eta tximistargia ez ditu iñork egiten. Baiñan adi-mugaketa ustel gerta ez dedin, horrelakoetan Jainkoa edo Izadia edo dena delako IXILLEKO SUJETO bat ba dagoela esan beharra zegoen. Ditezkenetara jotzea dugu oztopoei ez-ikusi egiteko ihespide nagusi.

Kintanak, ordea, Benot-ek gaitzesten duen bide horretatixe jo digu euskerazkoei dakiela ere: «Lehen», dio «OSTEK edo ORTZEK EURIA EGI-»TEN DU esanarren, zeruko jainko hori Kristoren erlijioz euskal-pentsaeratik galtzean (...) jendeek ahotik ere kendu zuten eta honela gaurko EURIA »DAKAR, HAIZE EGITEN DU ... geratu ziran».

Baiñan, euskerari gagozkiola ba ote da eguraldiari buruzko esakuneak nondik-norako ditezken adierazteko OSTE-rengana jo beharrik? Azter dezagun astiroxeago.

## 2 Hona euskal-gramatikolari batzuk ematen dituzten adi-mugapenak:

Azkuarentzat, aditzak izatea adierazten du bere soillean edo eta nolakoa den esanaz. Omaetxebarriaren iritziz, aditza, funtsean, gertakuntza baten adierazpena da. Batzutan, aditz-gaia egoera baten dagoela edo tasun baten jabe dela adierazten du; beste batzutan, gertakuntza jasaille bati datxeka, eta beste sail batekoetan berriz, egille bat eta jasaille bat dira gertakuntzan esku hartzen dutenak.

Lafittek, egoera edo jarduna adierazten duen hitza dela diosku.

Mendizabalek izaerarena gaiñeratzen dio Lafitterenari.

## 3 BENOT - Arquitectura de las lenguas.

## JÚPITER, OSTE, ETA OSTERANTZEKOAK

Gai hontaz diharduela, Kintanak esate-era hauk aipatzen dizkigu:

euria (haizea, txingorra) egiten du  
tximista bota du  
euria dakar  
trumoi (haize) egiten du

Hoietan, nere ustez TRUMOI (edo HAIZE) EGITEN DU ez da iñun ere esaten, TRUMOIA (edo HAIZEA) EGITEN DU baizik. Bestalde, EURIA DAKAR-ek ez digu euria ARI DENIK adierazten, etorri datorrela baiño; areago, EGURALDIAK (edo HAIZEAK, edo BEROAK) EURIA DAKAR esan ohi da, aditz-jabea argi eta garbi agertzen delarik.

Baiñan euskeraz ba da, eta ugari izan ere, eguraldiari buruzkoak adierazteko beste biderik; euriarekikoak emango ditut, adibide-gisa:

A - EURIA DA esatean, zer-denaren adierazpen huts bat egiten dugu, eta IZAN aditzaren gai EURIA bera dela agerian dago. Azkuek horretxegaitik dio, agian, erderazko LLOVER, NEVAR, ... euskeraz benetako aditz ez direla.

B - EURIA ARI DA.—Hemen ere, orobat, EURIA dugu ARI IZATEAREN gai.

D - EURIARI DARAGOIO    FONTES-en 17.gn alean nionez <sup>4</sup>, aditz-jabea  
EURIARI DINOTSO        adierazteko NORI delakoa NORK baiño  
EURIARI DERAUNTSA      zaharrago dateke; hiru hoik iharturik di-  
rauten NORI-dun huts genituzke beraz, hi-  
rurok EURIA bera dutela aditz-jabe.

E - EURIAK DERAUNTSA.—Hemen ere ez dago iñolako beste aditz-jaberen beharrik, D saillekoetan

euriaRI derauntsa → euriaK derauntsa

baten bidez NORK delakoa sartu izanari dariola garbi ikusten bait-da <sup>5</sup>.

Horra, dagoneko, OSTE-ren beharrik gabeko zenbait.

<sup>4</sup> "Euskal-aditzaz zenbait gogoeta", 277 orr.

<sup>5</sup> "Euskal aditzaz zenbait gogoeta", 277 orr.

F - EURIA DIHARDU.—Bergaran ba darabilgu baiñan, ohartuz gero, bertan ere arauz-kanpoko gertatzen da; izan ere, NORK ezarriz gero

hark euria dihardu

aterako litzateke, JARDUN aditzari bertan orain dagokion erabilkeraz erabat bestelako, hitzez-hitz horri legokioken

hark lana dihardu

ez bait-genuke iñola ere esango,

hark lanEAN dihardu

baizik. JARDUN aditzak bere behialako erabil-araua aldatu izanetik datorkioke, noski, esakune hontan erakusten duen arauzkontrakotasuna.

G - EURIA DARIO.—ERION aditzak, egun, bi erabilkera ditu zillegi, eta osatuz gero

HARI euria dario, nahiz

HARK euria darip

sor zitezkeen, lehenbizikoa zaharragotzat jo ditekela <sup>6</sup>.

H - EURIARI DAGO.—Lafittek ematen duen honi buruz honako hauk pentsa ditezke:

- a) Euskal-aditza NORI-dun huts zaneke ondakin bat dugu (?), edo
- b) Egungo erabil-arauak aditz-flesioa NORI-dun izatea eskatzen duenez gero, horrelako ez izateak frantseskeria baten ondorio edo ditekenezaren itxura ematen dio. Honela izatera, nolana ere ez luke osatzeko NORK beharko, NOR baiño.

I - EURIA ARI DU.—Ez Azkuek ez Lhandek ez dute bere hiztegietan ARI UKAN ematen, ARI IZAN baizik; herriak, ordea, ba dara-

<sup>6</sup> "Euskal-aditzaz zenbait gogoeta", 274 orr.

JÚPITER, OSTE, ETA OSTERANTZEKOAK

bil, baiñan eguraldiari buruzkoetan bakarrik. Bestetan, ez dut uste legokioken NORK delakoaz osatu eta iñori

Matxinek lana ARI DU

esatea bururatuko litzaiokenik.

J - EURIA EGITEN DU.—Horrelakoetan bai, esakunearen egiturak aditz-jabe bat (NORK bat) beharrezko du, zalantzarik gabe. Baiñan ... EGIN erakoak «bero EGITEN DU, hotz EGITEN DU» bezelakoetan ere erabili ohi dira, eta

bero DAGO / bero EGITEN DU

haizea DA, haizea DABIL / haizea EGITEN DU

bezelakoak elkarren ondoan jarriaz gero, EGIN-dunei erderetako

HACE calor, IL FAIT chaud

modukoen itxura geixko ematen diet besteak zaharragotzat ez jotzeko.

Erderetakoen antza, jakiña, ezin diteke zahar-berritasunaren eta jatortasunaren neurri bakartzat berez har, baiñan itxuraz bederen zaharrago ematen duten beste batzu ba daudela iritzi baten indargarri izan ditekela ezin uka. Diodan honek ez du, noski, egun darabilzkigun

euria ARI DU, euria EGITEN DU

besterik gabe baztergarri direnik ere esan nahi, hizkuntzak bere bizitze-bidean sortuarazi edo hartutakoak bait-ditugu.

Baiña, oro har, ondorioz hau atera ditekela uste dut: Hizkuntzalaritzamailla baten NORK-dunok ez DITEZKELA, hain zuzen, aspaldi zaharrean gertatutakoen egiztapidetzat jo, eta OSTE litzateken horren izena izkutatuz sor zitezkeelako usteak oiñarririk gabeko dirudiela.

Nolanahi ere, eta lehengoa birresanez, eguraldiari buruzko esakuneok Europako sartaldeko hizkuntzetan arauz-kanpoko gertatzen dira. Latiñetikakoei gakizkiela, jainko-izenen bat izkutatu izatea (nahiz hori gertatu denik egiztatu ezin)

Ilueve, nieva, truená, ...  
il pleut, il neige, il tonne, ...

modukoentzat argipide litzateke. Baiñan IMPERSONAL direlako hoik latiñetikako ez direnetan ere gertatzen dira; adibidez,

ingelesez IT RAINS, IT WAS SNOWING, IT THUNDERED, ..., eta  
alemanez ES REGNET, ES SCHNEIT, ES DONNERT, ...

ematen dituzte. Hizkuntza hoietan, ordea, harrei, emeei eta ez har ez eme direnei dagozkien izenordeak bereizi egiten dituzte,

HE, SHE, IT            eta            ER, SIE, ES

darabilzkitela. Beraz, dirudienez, jainko-izenen batzu izkutatzea gertatu izatera orain Jainkoaz dihardutenean bezelaxe HE eta ER-ez baliatu behar luke-tela esan diteke, erabili darabilzkiten IT eta ES-en ordez.

Ondorioz, hauxe: SUJETO-rik ez hori latiñetikako ez baiñan latiñari berari beste zaharrago bategandik datorkiokela bidezko dirudi. Hontan, agian, euskerak lagun diezaieke besteei bide-billa; izan ere beste hoietan ere aditza ez bide zan, euskeran gertatu den bezelaxe, orain dagon hortantxe sortu, eta behialako nondik-norako eta aldakuntzak zehatz aztertu beharko lituzkete erabakikizun dagoen hauzi hori garbitzeko <sup>7</sup>.

---

Bere liburuaren beste zati batean, Kintanak, gure hizkuntzan iraun di-rauen politeismu-kutsu bat ba deneko iritziaren indargarri, honela dio: «... mintzatzean, zenbait indar natural bizi eta eragilletzat daduzkagu. Egiaz, »ez dugu esaten HIBAIK JOSE ITO DU, JOSE HIBAIAN ITO DA baizik, »hibaia gauza hil edo bizi gabea delakoan, bainan ba diogu oraindik HAI-»ZEAK PAPERAK DARABILZKI KALEAN, eta ez PAPERAK KALEAN »HAIZEZ ERABILTZEN DIRA. Hoietan, dakusagunez, halako bizitasun »eta bodere berezi bat ematen diogu HAIZE deritxon *jainkotxoari*» <sup>8</sup>.

7 Agian hizkuntza hoietan aditzok izenak adituz sortuak dirateke, eta  
GRANIZO-tik  
GRANIZAR = caer granizo

bezela atereak. Horrela izatera, GRANIZAR aditzak, adibidez, SUJETO-a berebaitan leramake, eta GRANIZA dionak EL GRANIZO GRANIZA lioke, bidebatez, SUJETO-a berriz aipatzea alperriko litzatekela.

8 Lehen, eguraldiarekikoetan,

haizea egiten du

jainko-izen bat izkutatzetik zetorkela zion Kintanak. Hemen berriz HAIZEA bera dugu «jainkotxo».

## JÚPITER, OSTE, ETA OSTERANTZEKOAK

Ni neu, geitxo ikustea ez ote den nago; izan ere, bide horri baginda-  
rraizkio,

urak harriak busti ditu  
irakak garia galdu du  
elurrak bidea estali du

diogunean ere, orobat, UR, IRAKA eta ELUR ere «jainkotxo» genituzke.  
Baita ZAPATA ere,

zapatak min ematen dit

bezelako bati bagagozkio. Areago:

hibaiak zubia bota du

ere esan ditekenez gero, horra arestian «gauza hil edo bizi gabea» zen HI-  
BAIA ere «bizitasun eta bodere berezi» baten jabe litzateken «jainkotxo»  
bihurturik.

«Jainkotxo»-z aberats giñateke behintzat...

---

Kristautasuna Euskalerrian sartu baiño lehenagotik datozkigun zenbait  
gauzek gure pentsatze-eran iraun dirautenik (eta batzutan bizi-bizirik iraun  
ere) ezin iñork ukatu. Elezahar, atsotitz eta siniskeriek, adibidez, aspaldi  
zahar hartako oihartzun ozena dakarkigute; aski dugu, hortaz jabetzeko, Ba-  
randiaranenak irakurri eta hark aipatzen dituenetatik zenbait eta zenbait  
gaurregun ere gure inguruan ikustea.

Hala ere, ordea, egun darabilzkidan gaiei nagokiela, OSTE eta «jain-  
kotxo» lirateken hoiinak jakintza-maillan onargarri izan ditezkenik ez dut  
uste.

Nolanahi ere, hizkuntzak behialakoei eutsi egiten dienaren lekukoak  
ugari ditugu: Toki-izenak, asteko egunenak, ahaidetasunari dagozkienak,...  
e. a. Hizkuntzalariek ba dute hor, sail berriak harrotuz, beste jakintza-saille-  
takoekin batean lantzeko azterketa-gairik.

J. OREGI ARANBURU

1975 - XII

**SUMMARY**

In this paper, the author tries to put into context, with reference to the Basque language, the problem presented by grammatical explanation of impersonal verbs relating to atmospheric phenomena (RAIN, SNOW, etc.), discarding the theory that in those verbs there always exists a hidden subject.

With this in mind, the diverse forms in which Basque expresses aspects of these phenomena are examined, and the conclusion is reached that in our language the necessity of an agent subject in the ergative case is presented only when, abandoning more genuinely ancient modes of expression, those of neighbouring languages are copied.

Moreover, the existence of this class of verb in non-Latin languages shows that their origin must be sought in more ancient idiomatic states, centering the investigation on the evolution of the verbal concept and verbal forms, for which, perhaps, a consideration of those same aspects in Basque would not be without profit.

The author rejects as superficial any suggestion of a possible concrete form of the survival of pagan ideas in modern Basque, pointing out, however, the existence of other surviving relics and the possibility of extending the scope of his study in collaboration with other scientific disciplines.